

MNEMÓSINE

Jon Kortaberria Lopetegi

Beasain

Oroitzapenek
zapore gozoa dute
garai garratzetan,
argi distiratsua
aro ilunetan,
kolore bizia
une arreetan.

Gotorleku suntsiezinak,
zimeltzen ez diren larrosak,
denboraren logikatik at.
Lanbro arteko errealitateak,
amets iheskor eta
irudi lausoak.
Ertz biko labanak,
atsekabeen aringarri,
bizipen berrientzat, lasta.

Iraganaren itsasoan,
erraza da iparra galtzea.
Gainazaleko istiluetatik ihesi,
etorkizuna ito da

ur larrietan murgiltzean.
Bizitakoaren menpeko,
bizitzeari muzin eginez.
Begirada atzean tinko,
datorrenari bizkarra emanaz.

Mnemósinen leizea
babesa den arren,
ziega sakona besterik ez da,
bertara ez da inoiz
egunsentiko argi-izpirik iristen.
Oroitzapenen lurra,
emankorra iruditu arren,
soro antzua da,
bertan ez da inoiz
lore berririk hazten.

Atzerapausoz
ezin da aitzina egin,
bide berean behin eta berriz ibiliz
ezin da haratago jo.
Aurre egin garai garratz,
aro ilun eta une arreei,
horrelaxe soilik sortzen baitira,
gozotasuna, argia
eta kolore berriak.